

2022KO OTSAILAREN 1EAN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2021EKO AZAROAREN 2KO, AZAROAREN 23KO ETA ABENDUAREN 27KO BILKUREN AKTAK).

2.- UDAL LANGILEEN ORDAINSARIAK HANDITZEARI BURUZKO ERABAKIA.

3. ALKATETZAREN ERABAKIAK.

4.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen).

Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)

Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).

Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Imanol Garmendia Iurretagoiena jn. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Jose Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2021EKO AZAROAREN 2KO, AZAROAREN 23KO ETA ABENDUAREN 27KO BILKUREN AKTAK).

Alkateak, 2021eko azaroaren 2ko, azaroaren 23ko eta abenduaren 27ko bilkuren aktetan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Ez da inolako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen dira adierazitako aktak.

2.- UDAL LANGILEEN ORDAINSARIAK HANDITZEARI BURUZKO ERABAKIA.

EUDEL-EK UDALHITZ hitzarmenaren negoziazio kolektiboari buruz, zirkularra bidali du, Udalei, zenbait neurri har ditzaten gomendatuz.

Zentzu horretan, honako gomendio hau egiten zaie EAEko udalei:

“ 2022KO ORDAINSARI-IGOEREI BURUZKO INFORMAZIO ZIRKULARRA

Joan den 2021eko abenduaren 29an, *Estatuko 2022rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legea* argitaratu zen BOEn.

Lege horrek, III. tituluko I. kapituluan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuak arautzen ditu, eta, zehazki, 18. artikuluan, 2022ko ekitaldirako ordainsari-igoeren mugei heltzen die, eta honako hau arautzen du:

“(…) Bi. 2022. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak ezin izango dute ehuneko 2ko igoera baino handiagoa izan 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, bai langile kopuruari, bai antzinasunari dagokionez, alderaketaren bi aldietarako homogeneotasuna mantenduz. Gizarte-ekintzako gastuak, oro har, ezin izango dira handitu 2021ekoan aldean. Horri dagokionez, gizarte-ekintzako gastuak egindako lanagatiko kontraprestazioez bestelako onurak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, sektore publikoaren zerbitzura dauden langile horien inguruabar pertsonalen ondoriozko premia jakin batzuk asetzea helburu dutenak.”

Aurrekoa ikusita, 22/2021 Legea indarrean sartu ondoren, eta EUDELek aurreko ekitaldietako ordainsari-igoerei dagokionez egin duen bezala, egin ditzakeen interpretazioak argitze aldera, egokitzat jotzen da euskal udalei honakoa gomendatzea:

GOMENDIOA

22/2021 Legearen 19 Bi artikuluaren edukiari dagokionez, EUDELek gomendatzen du sektore publikoko langileen ordainsariak handitzea, 2022/01/01etik aurrerako ondorioekin, lege onartutako gehienekoa, hau da, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko %2, konparazioaren bi aldietarako, bai langile kopuruari, bai antzinasunari dagokionez, homogeneotasuna mantenduz.

Gomendio honen bidez, EUDELek lege-agindu horren irismen juridikoa argitu nahi du, horrek guztiak negoziazio kolektiboaren esparruan etorkizunean aurrera egiteko bidea erraztuko duelakoan, UDALHITZ Akordio arautzaile berria lortu ahal izateko.

Era berean, EUDELek berretsi du garrantzitsua dela “UDALHITZ 2008-2010 Akordioa” bere horretan betetzea, lortutako akordioak benetan betetzean datzalako berme nagusia, eta, gainera, sektoreko akordio berri bat lortzeko legitimazio gisa balio duelako. Ildo horretan, egungo UDALHITZ 2008-2010 araua betetzean egon daitezkeen hutsuneak konpontzeko tresna, azken zirkularretan gogorarazi dizuegun bezala, erakunde bakoitzean gaitutako jarraipen-mahaiak izan beharko litzateke. Gogorarazten dizuegu UDALHITZ 2008-2010 Akordioan gerta daitezkeen ez-betetze puntualak zuzentzeko akordioak erraztera mugatzen dela mahai horien xedea, eta kanpoko gaiak negoziatzeko prozesurik ez irekitzeko

gomendatzen da, EUDELEN eta sindikatuen UDALHITZ Negoziazio Orokorreko Mahaian baitago aplikazio-eremua.”

Hau aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako lau zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako zinegotziaren aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Adierazitako gomendioa onartuz, Udal langileen ordainsariak legeak baimentzen duen gehiena igotzea, hau da, %2a 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta.

Bigarrena.- Doakienei erabaki hau jakinaraztea.

3. ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 016/01121 erabakia, azaroaren 23koa, Osakidetzari osasun zentroa mantentzeko gastuak konpentsatze aldera, 2021eko ekitaldirako hitzartutako zenbatekoa (9.197,27 euro) jakinaraziz.
- 017/01121 erabakia, azaroaren 23koa, Arantxa Ormazabal Ormazabali baimena emanaz Zegamako udalerriko auto-taxiren lizentzia Aitor Zubiria Arregui eskuz aldatzeko.
- 018/01121 erabakia, azaroaren 24koa, Agitax-ek aurkeztutakoaren arabera, 2022ko taxi zerbitzuko tarifak onartuz.
- 019/01121 erabakia, azaroaren 26koa, etxebizitzan lanak egiteko lan baimena emateari buruzkoa.
- 020/01121 erabakia, azaroaren 29koa, Gipuzkoako Baso Elkarateak, 12tik 20ra eta 26-27 poligonoetako landalurren mugen jasotze topografikoa egiteko lanarengatik aurkeztutako 540/2021 faktura onartuz (36.300,00 euro BEZ barne).
- 021/01121 erabakia, azaroaren 29koa, 27 zenbakidun fakturen erlazioa (azaroa 3) - guztira 22.330,33 euro- onartuz.
- 01/01221 erabakia, abenduaren 1ekoa, etxebizitzan lanak egiteko lan baimena emateari buruzkoa.
- 02/01221 erabakia, abenduaren 1ekoa, lan baimena emateari buruzkoa.
- 03/01221 erabakia, abenduaren 2koa, lan baimena emateari buruzkoa.
- 04/01221 erabakia, abenduaren 16koa, 29 zenbakidun fakturen erlazioa (abendua) - guztira 22.408,65 euro- onartuz.
- 05/01221 erabakia, abenduaren 16koa, 07/2021 kreditu aldaketa espedienteari hasiera emanaz.
- 06/01221 erabakia, abenduaren 21ekoa, Arrano Talleres Electromecánicos S.L. enpresari kolektorera isurtzeko eskatutako baimena emanaz.
- 07/01221 erabakia, abenduaren 27koa, Zatzalibal Haundi eta Txiki baserrien bidea konpontzeko lana Mugamendi S.L. enpresari esleitzuz.
- 08/01221 erabakia, abenduaren 27koa, zenbait trafiko seinale jartzeko lana Jeus Irastorzari esleitzuz.
- 09/01221 erabakia, abenduaren 29koa, 30 zenbakidun fakturen erlazioa (abendua 2) - guztira 59.452,55 euro- onartuz.

- 010/01221 erabakia, abenduaren 30ekoa, Tobera Musika Eskolak errege kabalgata antolatzen egindako eskaera onartuz.
- 01/0122 erabakia, urtarrilaren 4koa, Central Forestal SAU enpresari egurra ateratzeko herri bidea erabiltzeko baimena emanez.
- 02/0122 erabakia, urtarrilaren 4koa, Talleres Hirulanen lanak egiteko baimena emateari buruzkoa.
- 03/0122 erabakia, urtarrilaren 12koa, Tartaloetxe Pilota Kirol Elkarteari entrenamenduak eta pilota txapelketa ofizial eta ez-ofizialak bideratzeko udal frontoia erabiltzeko baimena emanez.
- 04/0122 erabakia, urtarrilaren 18koa, Ned Suministro GLP S.A.ri, 2021 ekitaldiaren 2. seihileko epeari dagokion erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa onartuz (1.685,91 euro).
- 05/0122 erabakia, urtarrilaren 18koa, Orange Espagne S.A.U.ri, 2021 ekitaldiaren 2. seihileko epeari dagokion erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa onartuz (159,19 euro).
- 06/0122 erabakia, urtarrilaren 21koa, 31 zenbakidun fakturen erlazioa (abendua 3) - guztira 87.148,05 euro- onartuz.
- 07/0122 erabakia, urtarrilaren 21ekoa, Idazkari-Kontuhartzaileak bere lanpostua egun batzuetan telelana bidezko modalitatean burutzeko aurkeztutako eskaera onartuz.
- 08/0122 erabakia, urtarrilaren 24koa, Altziturri-Apikoa baserriko teilatu azpiko etxebizitzaren lehen erabilerrako baimena emanez.
- 09/0122 erabakia, urtarrilaren 25ekoa, lan baimena (fisioterapia zentroa) emateari buruzkoa. Puntu honetan, losune Azurmendi Telleria zinegotziak (EH Bildu) galdetzen du ea gaur egun paretan dagoen marrazkia mantenduko den. Alkateak erantzuten du ziur asko kendu egin beharko dela.

4.- GALDE ERANTZUNAK.

Ez dira adierazten.

Aztertzekeo gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko seiak eta berrogeita bostak direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

